



Europako  
Batzordea

# Ekonomia zirkularrerako ekintza-plana

Europako  
Itun Berdea

2020ko martxoa  
#EUGreenDeal

**Ekonomia zirkularrerako ekintza-plan** berriak ekimen berriak aurkezten ditu produktuen bizi-ziklo osoan zehar, gure ekonomia modernizatu eta eraldatzeko, aldi berean ingurumena babestuz. Planaren helburua da, hain zuzen, produktu iraunkorrak egitea eta europarrei aukera ematea ekonomia zirkularrean bete-betean parte hartzeko eta ekonomia horrek sortzen ditu.

Eurobarometroaren azken inkestaren arabera, gero eta hondakin gehiago egotea da herritarren hiru kezka nagusietako bat ingurumenari dagokionez. Elkarrizketatuen ustez, ingurumen-arazoei aurre egiteko modurik eraginkorrena **kontsumitzeko eta ekoizteko modua aldatzea** da.

HONA PROPOSATUTAKO NEURRI BATZUEN ADIBIDEAK ETA HAI EKIN GAUZATZEKO MODUA ERE

## Elektronika eta IKT-ak



**Tresna elektrikoak eta elektronikoak** dira azkarren handitzen ari diren Europar Batasuneko hondakin-fluxuak.

Hiru europarretatik bik denbora luzeagoan erabiliko lituzkete gailu digitalak, haien errendimenduak kalte nabarmenik izango ez balu.



Europar Batasunean merkaturatutako produktuak beste era batez diseinatuko dira, **gehiago iraun dezaten eta konpontzeko, eguneratzeko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko errazagoak izan daitezten.**

«Produktua zerbitzu» gisa erabiltzeko pizgarriak eskaintzea: enpresek produktuaren jabetzari eta erantzukizunari eutsiko diote haren bizi-ziklo osoan.




## EHUNGINTZAKO PRODUKTUAK



Mundu osoan, segundoro bidaltzen da **ehun-produktuz** betetako kamioi bat errausketara edo zabortegi batera.

Kalkulatuenez, munduko ehun-produktu guztien %1 baino gutxiago birziklatzen da beste produktu berri bilakaturik.



**Negoio-eredu berriak bultzatzeak** ehungintzako produktuen sailkapena, berrerabilpena eta birziklapena suspertuko ditu, eta kontsumitzaileei aukera emango die ehungintzako produktu jasangarriak hautatzeko. Diseinu ekologikoa produktu-sorta handiago batera hedatuko da: arropa denbora gehiago irauteko moduan fabrikatuko da.




## PLASTIKOAK



Datozen hogeitun urteetan **plastikoaren kontsumoa bikoiztea** aurreikusten da.

2050ean, plastikoak petrolio-kontsumoaren % 20 eta berotegi-efektuko gasen % 15 izan litezke, eta arrainak baino plastiko gehiago egon litezke ozeanoetan.



**Erabilera bakarreko produktuak pixkanaka ezabatuko dira**, ahal den guztietan, eta haien ordez askotariko produktu iraunkorrak fabrikatuko dira

**Mikroplastikoen kontra jardutea:** nahita gehitutako mikroplastikoak murriztuko dira, eta mikroplastikoen atzematea areagotuko da produktuaren bizi-zikloaren fase guztietan.



## ELIKAGAIAK ETA ONTZIAK



2017an, ontzien hondakinak maximo honetara iritsi ziren Europan: **173 kg / biztanleko**.



Berrerabilpenaren arloko lege-ekimen berriak proposatuko dira, **erabilera bakarreko ontziak, baxerak eta mahai-tresnak** elikagai-zerbitzuetan berrerabil daitezkeen produktuekin ordeztzeko. Horretaz gain, ontzien hondakinak murrizteko helburu berriak ere ezarriko dira.



## HONDAKINAK



Herritar bakoitzak ia **tona erdi hiri-hondakin** sortzen ditu urtean.



**Hondakinak prebenitzeko eta murrizteko** neurriak hartuko dira, birziklatutako edukia areagotuz eta Europar Batasuenetik kanpoko hondakinen esportazioak ahalik eta gehien murriztuz. Europar Batasunaren eredu bat jarriko da abian, produktuak gaika biltzeko eta etiketatzeko.



© Europar Batasuna, 2020

Dokumentu hori berrerabil daiteke, baldin eta iturria behar bezala identifikatuta badago eta edozein aldaketa adierazten bada (Creative Commons-en lizentzia, nazioarteko 4.0 aitortpena). Europar Batasunaren jabetzakoak ez diren elementuak erabili edo erreproduzitzeko, eskubideen titularrei zuzenean eskatu ahal izango zaie baimena.

Irudi guztiak © Europar Batasunarenak dira, kontrakoa adierazi ezean. © Flaticon ikonoak (eskubide guztiak erreserbatuta).

Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2021eko apirila • Ale-kopurua: 180 ale • © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza • Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) • Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofi ziala) • Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastián, 1 -01010 -, Vitoria-Gasteiz) • Inprimaketa: PRINTHAUS, S.L. • Lege-gordailua: LG G 147-2021



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco